

ARMAGINTZAREN MUSEOA MEMORIA (2014).



0. 2014KO EGUTEGIA.

1. BISITAK.

- a) Museoak izan dituen bisitariak.
- b) Webgunearen bisitak 2014an.
- c) Egin diren kontsultak armen eta Eibarko industria-ondarearen gainean.

2. JARDUERAK.

a) Funtsen dokumentazioa: Euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. Bildumak zaintzea eta zaharberritzea

- a1. Museoaren fondoak euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea V. fasea 2014. urtea.
- a2. Fondoen zaharberritze lanaren 2014rako aurreikuspena
- b) **“Arma bildumaren 100 urteen ospakizuna” programa.**
 - b1. **“Armen erakusketa”**-ren berritzapena.
 - b2. Hitzaldiak
 - 1. Los "valores eibarreses" de los Zuloaga (1794 - 2014).
 - 2. Eibar Universal Historia de una colección.
 - 3. Una industria, una villa. Eibar 1914
 - b3. **“Eibar Industrialia 2014”** aldi baterako erakusketa

c) Programa didaktikoa.

- c1. Bisita gidatuak,
- c2. Jarduerak eta tailerrak
 - 7. urteurrena
 - Aste Santua
 - Museoen Nazioarteko eguna
 - Klub gastronomikoa
 - CIBLES frantziar aldizkarian artikulua:
 - Euskaraz bizi nahi dut azoka
 - Jardueraren dossier berria
 - Irakasleentzako material didaktikoa
 - Santa Barbara eguna
 - Eibar Matxariatuz
- c3. QR kodeen bidez Eibarren ibilaldi industrialia egiteko edukien ekoizpena.

d) Hitzarmenak

e) Funtsen kudeaketa

f) Biltegiaren hobekuntza

g) Praktiak

0. EGUTEGIA 2014

URTARRILA

		1	2	3	4	5						1	2					1	2	
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	3	4	5	6	7	8	9
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	10	11	12	13	14	15	16
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	17	18	19	20	21	22	23
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28			24	25	26	27	28	29	30
														31						

OTSAILA

MARTXOA

APIRILA

MAIATZA

EKAINA

	1	2	3	4	5	6				1	2	3	4							1
7	8	9	10	11	12	13	5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8
14	15	16	17	18	19	20	12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15
21	22	23	24	25	26	27	19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22
28	29	30					26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29

UZTAILA

ABUZTUA

IRAILA

	1	2	3	4	5	6				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7	
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		29	30					

URRIA

AZAROA

ABENDUA

		1	2	3	4	5						1	2	1	2	3	4	5	6	7
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	29	30	31				

Ordutegia

	Museoa itxita		Irekita:4 ordu		Irekita:7 ordu
	Irekita: 3 ordu		Irekita: 3:30 ordu		

Asteazketik larunbatera: 16:00-20:00 .

Domeketan: 10:00-13:00

Abuztuan, asteartetik ostiralera: 10:00-13:30

Ekainaren 25etik irailaren 29ra, asteburuetan itxita.

1. BISITARIAK


a) Bisitariak museoan

2014	BISITA RIAK	Gizone zkoak	Emaku meak	Haurra k	IKASL EAK	IRAKA	SLEAK JUBIL	ATUA	IKERL K	ARIAK	GIDAK	ENPR	ESAK LANGA	BETUA K	BESTE AK
Urtarrila	244	122	96	26	34	2	62	0	0	0	0	0	0	146	
Otsaila	123	59	50	14	50	2	38	0	4	0	1	28			
martxoa	277	122	137	18	57	6	132	1	1	0	20	60			
Apirila	282	123	133	26	73	1	118	0	2	0	20	96			
Maiatza	247	104	81	62	88	7	63	6	0	6	1	76			
Ekaina	190	70	74	46	53	5	51	1	0	0	17	68			
Uztaila	190	93	81	14	14	2	59	0	1	15	5	91			
Abuztua	129	64	47	18	18	0	52	2	1	1	0	0			
Iraila	104	54	41	9	4	0	69	0	0	0	0	31			
Urria	891	502	343	46	47	2	280	0	0	0	17	304			
Azaroa	416	178	135	105	113	6	140	1	0	57	6	95			
Abendua	424	234	152	38	73	2	152	1	3	1	2	190			
GUZTIRA	3517	1725	1370	422	624	35	1216	12	12	80	89	1175			

Urtea	Bisitariak GUZTIRA	Irekita egon den egun kopurua	Eguneko batz bestekoa
2007	5.221	275	18,98
2008	2.035	279	7,29
2009	4.360	274	15,91
2010	3980	229	17,37
2011	3549	226	15,70
2012	2686	218	12,32
2013	2637	223	11,82
2014	3517	232	15,15
GUZTIRA	27.985	1956	14,30

2014, urtena zehar aurreko urtean baino bisitari gehiago izan du museoak, 880 hain zuzen. Iraila izan da bisitari gutxien izan duen hilabetea, 104 bistari. Kontutan hartu egin behar da hilabete horretan, erakuskeraten aldaketa dela eta, arma erakusketaren aretoak itxita zeuden. Beste aldetik bisita gehien izan duen hilabetea urria izan da- 891 bisitari-erakusketa berriaren irekieraren data dela eta..

b) Webgunearen bisitak 2014an.



2014	Orrialdearen karga. (1)	Bisitari bakarrak (2)	Lehenengo aldiz egiten diren bisitak (3)	Bisita errepikariak (4)
GUZTIRA	171,345	50,754	45,137	5,617
Batazbestekoa	14,279	4,230	3,761	468
2014	Orrialdearen karga. (1)	Bisitari bakarrak (2)	Lehenengo aldiz egiten diren bisitak (3)	Bisita errepikariak (4)
Abendua	13,200	3,941	3,500	441
Azaroa	15,802	4,534	4,031	503
Urria	16,032	4,702	4,138	564
Iraila	11,844	3,807	3,364	443
Abuztua	12,268	3,561	3,179	382
Uztaila	13,102	3,882	3,410	472
ekaina	12,562	3,553	3,132	421
Maiatza	15,965	4,636	4,133	503
Apirila	13,264	4,171	3,723	448
Martxoa	14,523	4,558	4,045	513
Otsaila	15,488	4,493	4,059	434
Urtarrila	17,295	4,916	4,423	493

1. **Orrialdearen karga.** Orrialdea zenbat aldiz ikusi den adierazten duen kopurua.


2. **Bisitari bakarrak.**- cookie bakar batean oinarrituta, hau da: lehenengo aldiz egiten diren bisitak eta errepikariak edo sarritan bisitatzen dutena, denak batuta.

3. **Lehenengo aldiz egiten diren bisitak:** cookie bakar batean oinarrituta, pertsona horrek ez badu cookierik, orduan, horixe hartzen da bere lehenengo bisitatzat.

4. **Bisita errepikariak.**- cookie bakar batean oinarrituta, pertsona hori webgunera beste ordu beteko bisita baterako edo beranduago bueltatzen bada.

2007-2014 bitarteko eboluzioa :

2007-2014	Orrialdearen karga. (1)	Bisitari bakarrak (2)	Lehenengo aldiz egiten diren bisitak (3)	Bisita errepikariak (4)
2007	264.763	48,223	43,653	4,570
2008	328.436	77,372	71,071	6,301
2009	412.616	103,408	94,739	8,669
2010	394.903	99.299	99.299	8.456
2011	315.057	85.004	77.446	7.558
2012	297.295	82,311	74,606	7,705
2013	231,490	65,448	58,745	6,703
2014	171,345	50,754	45,137	5,617
Guztira	2,415,905	611,819	556,240	55,579
Batazbestekoa	301,988	76,477	69,530	6,947



c) Egin diren kontsultak armen eta Eibarko industria-ondarearen gainean.

- Posta elektronikoz bidez: 105
- Telefono bidez: 23

1. JARDUERAK

2. a)-Funtsen dokumentazioa: Euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. Bildumak zaintzea eta zaharberritzea

2.a1.- Museoaren fondoak euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea VI. fasea 2014. urtea.

Azken bost urteetan Armagintza Museoa Eusko Jaurlaritzako **ENSIME** programaren barruan katalogatzen ditu bere ondareak. Programaren helburua Euskadiko Museoen fondoan katalogoak harremanetan jartzea da, ahal den neurrian, maileguak errazteko eta bilduma ezberdinen ondarean besteei ezagutarazteko. 2014. urteko uztailetik aurrera sarean(<https://www6.euskadi.net/r46-emsime/es/v09aNucleoWar/ciucFNuevaConsulta.do>) kontsulta daiteke.

Armagintza Museoaren ondareen katalogazioan, pieza bakoitzeko fitxa bat betetzen da non, xehetasunez, pisua, neurriak, materialak, kontserbazio egoera eta abarreko datu deskribatzaileak batzen diren. Era berean, egilea, funtzionamendu, historia eta harrerari buruzko datuak ere jasotzen dira. Fitxa guztietan piezaren argazkia txertatzen da.

Fitxa bakoitzean katalogatutako funtsaren erregistro zenbakia adierazten da. Zenbakia bakarra da, beste inork ezingo du zenbaki bera izan. Objektua identifikatzeko, bere kokapena eta piezari buruzko gainontzeko datuak ezagutzeko balio du zenbaki honek.

Orain arte Museoan dauden 15.000 piezetatik 8.320 katalogatu dira, 2014. Urtean 629 pieza- beraz katalogazio lana amaitzeko dago oraindik. Honetaz gain bilduma aberasteko pieza berriak jasotzen dira bai erosiz, ematez edo aldi baterako utzita.

2014. urtean zehar honako lan hauek burutu ditugu:

1. Museoko biltegian eta Portalea eraikineko bigarren solairuko artxibategian gordetako funtsen katalogazio eta inbentarioa. Unean uneko azterketak emandako emaitzek igorritako datuak erabiltzen dira katalogaziorako. Era berean, Eibar eta oro har, eskualde osoko armagin eta aholkulari teknikoengana jotzen dugu momentu puntaletan informazio zehatzagoaren bila.
2. Erakusketarako edo eta biltegiatze espazioen antolaketa eta kudeaketa. Kaxa ezberdinen identifikazio eta berrantolaketa.

3. 2014. urteko urrian Arma erakusketako pieza gehienak aldatu ziren. Ondorioz, erakusketa aretora edo biltegira mugitutako pieza bakoitzaren kokapen aldaketa egin behar izan dugu EMSIME datu basean.
4. Arma biltegia txukuntzea. Bertan gordetako pieza asko lekuz aldatuta zeuden. Bakoitza bere lekuan kokatu, EMSIME datu basean erregistratu eta biltegian bertan ezartzeko zerrenda bat egin da. Arma bakoitzaren erregistro zenbakia eta kokapena zehazten dira bertan). Bildumako funtsen kopurua hain handia izanik, ezinbestekoa da kokapenaren kontrola egunean edukitzea.

Museoko funtsen erregistratzea, inbentariatzea katalogatu eta digitalizatzeko ardura Astixa-k hartu du bere gain eta 400 ordu eman lan honetara

VI. FASEAREN GASTUA13.290,61

a2.- Funtsen zaharberitze lanaren 2014rako lanak.

Hona hemen 2014. urtean Armagintzaren Museoak egin duen zaharberitze lana:

Helmholtz organoaren barrukoaren zaharberitze lanaren bigarren fasea

2013.urtean, HELMHOLTZ markako organoa eta pedal eta bankadaren zaharberitze lanaren lehenengo fasea burutu genuen. Pieza hau, XX.mendeko 60. hamarkadan José Luís Elorzak eta José eta Jesús Ibaceta anaiak fabrikatu zuten Eibarren. 46. alea da.

Durangon kokatutako RestaurArte taldea izan zen zaharberitzearen arduraduna. Horrelako lanak burutzeko beharrezko ezaugarriak biltzen dituen talde profesionala du eta urteetako esperientziak bermatzen du hauen lana.

Piezaren kontserbazio egoera:

Orokorrean egoera onean zeuden aipaturiko piezak. xilofagorik ez zen ageri egurrean. Egurrezko txaparen zati txiki batzuk falta zaizkiola izan ezik, kalte gehienak babesten duen berniz kaparen gain zeudela esan daiteke. Urratu batzuk eta une batzuetako zurtasun orbanak izan daitezke aipagarrienak.

OBJEKTUA: ORGANO KAXA ETA PEDALA

Burututako tratamendua: Organo kaxako eta pedaletako egurraren desugerketa eta garbiketa. Pedalaren gainontzeko piezen garbiketa. Falta ziren egurrezko txapa zati berriak gehitu zaizkio. Altzariaren egitura orokorraren behaketa eta, beharrezkoa zen guneen kolatzea. Goma-lakarekin bernizatu eta Desugertu gabeko piezak argizariz babestu dira.

OBJEKTUA: ORGANOAREN BANKUA

Burututako tratamendua: Egurraren desugerketa eta garbiketa. Behar zuen lekuetan txapa itsastea. Goma-lakarekin bernizatu eta "muñequilla" erara amaitua.

Lan hauek guztiak RestaurArte enpresaren gain egon dira.

2014. urtean egindako **2. fase** honen baitan barrualdeko kaltetutako pieza guztien konponketa eta falta ziren zatien ordezkatzeta egon da. **ELECTROAGUIRRE CB**ko Jesús Mari Aguirrek egin du lan hau organoaren sortzaileetako bat izan zen Elorza jaunaren laguntzarekin.

HELMHOLTZ ORGANOAREN ZAHARBERRITZEAN ERABILITAKO MATERIALA

GENERADOREA: Sintonia kondentsadoreak ordezkatzeta	68€
Start motorraren errebobinatzea.....	86€
56 eta 75 noten bi sintonia bobinak jartzea.....	48€
Kontsolako 4 kaskiloak moldatzea.....	48€
Scanner kableak Vibr kommutadorera eramatea.....	28€
PREAMPLIFIKADOREA: 2 6SN7 balbula.....	128€
2 6SJ7 balbula.....	86€
1 Vibrato irteerarako transformadorea.....	110€
Kondentsadoreak, etab.....	30€
TEKLATUA: 1. teklaturako 2 kommutadore tekla.....	70€
2. teklaturako kommutadore tekla 1	35€
Start etengailua.....	18€
4 tekla.....	140€
DEFASADORE KAXA: Erresistentzia-ahalmen talde berria.....	45€
BARRUKO ARGIZTAPENA : 4 LED tira.....	80€
Pedaleko argiztapena.....	34€
ETAPA ANPLIFIKATZAILEAK: 8 "6V6" balbula.....	244€
1 transf alim	90€
Akoplerakokondentsatzaileak ordezkatzeta.....	48€
2 "6J7" balbula.....	76€
2 "6C5" balbula.....	64€
12" Melodial bozgorailua.....	45€

BESTELAKO MATERIALA:

Altzariaren oinarrirako medailoiak, torloju desberdinak, terminalak, kableak, mahuka anizkunak, erregleta konexioak, kola, euskarriak, etab.100€

Eskulanaren kostua, organoaren zaharberritze guztian (desmuntaketa, muntaketa, saiakera eta Portaleara lekualdaketa) doakoa izan zen. Erabilitako materialen kostua ordaindu zen soilik..

Gastua:1.721€

2.b) Arma bildumaren 100 urteen ospakizuna” Programa

Museo de Armas de la Escuela de Armeria

“No podía nuestra industria tradicional carecer por más tiempo de un Museo de Armería donde poder conservar las obras con las cuales nuestros antepasados honraron el nombre de Eibar tan conocido hoy en todo el mundo...;

...y se volvió a acuerdo pensando en la fundación de una escuela profesional de Armería; uno y otro proyecto han tenido felices intérpretes en el Exmo. Sr. Don Fermín Calbetón que con sentido práctico sin igual e inspirado por el amor a su tierra ha puesto al servicio del pueblo de Eibar, toda la influencia de su eminente significación política, en el Exmo. Sr. Don Juan Navarro Reverter cuya frase lapidaria “De aquí saldrá una escuela” pronunciada en su primera visita a esta villa, ...”

El Comité Ejecutivo de la Escuela de Armeria

(En la inauguración del Museo de Armeria de la Villa de EIBAR – 24 de Junio de 1.914)

Eibar X
1 9 1 4
2 0 1 4

1 0 0.
Urteurrena
Arma Museoa
Museo de Armas

logotipoa

1914. urteko ekainaren 24an Arma Museoa bere atea lehen aldiz ireki zituen. Arma Museoko arma bilduma zoragarri hura da gaur egungo Armagintza Museoaren oinarri.


Armeria eskolan irekitako Museo haren urteurrena ospatzeko eta, bide batez, haren sorreran parte hartu zuten laguntzaile guztiak omentzeko helburuarekin, hainbat ekitaldi desberdin antolatu dira.

Helburuak

- Data hau ospatzea eta 1914an bilduma sortu zuten pertsonak goraiatzea.
- Ehun urte hauetan museo honen jarraipena bultzatu duten ei omenaldi bat egitea.
- Armagintza museoa eta Eibarko industrial ondarea zabalitzea.

Jarduerak

Armeria Museoa 1914. urtean argitaratu zuen lehen katalogo hura sarean jarri dugu hasteko. Era berean, webguneari (www.armia-eibar.net) atal berri interesgarriak gehitu zaizkio, esaterako [Dokumentu-funtsa erakusketa birtuala](#) (ERAKUSKETAK atalean). Antzinako katalogo industrialak, iragarkiak, patenteak eta beste hainbat dokumentu bistaratu ditugu hemen. LIBURUTEGIA atalean ere material berria aurki daiteke. Museoarekin eta Eibarko industriarekin zerikusia duten eta gaur egun agortuta dauden liburuak irakur ditzakezue bertan eta baita **“Martinek armagin izan nahi du”** material pedagogikoa ere. Armaginen lanbide desberdinei buruzko koadernotxo irudiztatuak dituzue hauek.





2. b1. “Arma erakusketa”-ren berritzapena

Bildumako funts osoaren % 20a baino ez zegoen ikusgai museoan. Armeria Eskolak 1914. urtean hasi zuen bilduma haren urteurrena aitzakia bezala hartuta, erakusketako pieza gehienak aldatu eta, joan den urriaren 8an, erakusketa iraunkor berrizatuak bere ateak estreinako zirela ireratu zituen. Hastapenetako erakusketa hartako 50 arma mantendu dira erakusketa aretoan baina, 200 pieza inguru lehenengo aldiz daude ikusgai.

NON: Armen erakusketa aretoan.

Berriztatze honi dagozkion lanak bi multzotan sailka ditzakegu:

1. Ikerketa eta dokumentzio lanak
2. Lan museografikoak

1. **Ikerketa eta dokumentazio lanak** Armas Izarrako José Luis Valenciaga adituak egin ditu ikerketa, sailkatze eta dokumentazio lan guztiak. Erakutsiko diren pieza ezberdinen aukeraketa egiteko garaian, multzo hauei eman zaie lehentasuna:

- Eibarren ekoiztutako armak
- Historikoki zeresan handia duten piezak
- Garrantzia artistiko nabaria duten armak
- Garai, aurrerapen teknologiko edo gertaera historiko garrantzitsu batekin lotuta daudenak

Tiro egiteko sistema ezberdinak, marka eta puntzoiak eta erabilpen garai ezberdinen arabera multzokatu dira. Erakusketa gela ezberdinetan kokatzeko garaian, bi arrazoibide azpimarratu ditugu: suzko arma eramangarrien garapena eta armagintzaren eboluzio orokorra.

1 eta 2 aretoetan, aurrekargako armak

3. aretoan, atzekargaren hastapenak

4. aretoan, XX mende hasierako eta Lehen Mundu Gerrako armak

5. aretoan, Eibarren ekoiztutako armak

6. aretoa, arma artistikoak

7. aretoan, Espainiako Gerra Zibileko armak, II. Mundu Gerrakoak, espainiar jatorriko arma motzak, ehizarako eskopetak eta gaur egungo armak.

Emaitza honek, aurretik lan handia eskatu zigun:

- Arma bakoitzaren identifikazio eta izendapena.
- Arma bakoitzaren dokumentazio historikoa .
- Erakusteko hautatutako piezen araberako areto desberdinetarako testuak idatzi eta prestatzea.
- Arma bakoitzaren identifikaziorako karteletako testuak idatzi eta prestatzea. Museoko bildumari dagokion datu basea handitu eta eguneratzea.

Zerrendautako lanen kostua, GUZTIRA..... 6564,25 €

2. Lan museografikoak:

- Errotulazioa, IDEIAK1.514,92 €
- Euskarriak, PURITO.....581,76 €
- Testuen Ingeleseko itzulpenak Phil Wylie.....242,00 €
- Testuen euskarazko itzulpenak ..eta Kitto! Elkarte874,08 €
- Muntaketa lanetan laguntzaile, Astixa.....967,03 €
- Muntaketa lanetan laguntzaile, Guanabako.....626,78 €
- Konexio kaxaren instalazioa, SONO.....653,40 €

Erakusketa berriaren muntaketa gastua, guztira5459,97€

Erakusketa hau 2014ko urriaren 8an inauguratu zen. Erakusketaren irekiaren batera 100 urte hauetan museoaren alde egin zutenei omenaldi bat ospatu zen .

1914ko bultzatzaileak eta hurrengoak: Julian Echeverriaren senideak

1964ko urtekoak eta hurrengoak : Eulogio Gárate, Jerónimo Echeverría, Paciano Arosa, Jesús Charola, José Echeverría, Vicente Baroja, Manuel Iturricastillo, José Ormaechea.

1984ko urtekoak eta hurrengoak: José Zuloaga, Ramiro Larrañaga, José Kareaga, Pedro Celaya, Juan Luis Calvo Pascual, Atutxa, Mikel Larrañaga

2007tik aurrera: Iñaki Arriola, Nerea Alustiza. Iñaki Alberdi, eta abar.



Apertura. El alcalde agradeció a los familiares de los armeros la preservación y fundación del Museo de Armas que cumple su centenario. :: MIKEL ASKASIBAR

Museoan egiten diren ekintza garrantzitsuenen berri emateko helburuarekin, honako ekintza hauek burutu ditugu 2014. urtean zehar:

- Logotipoen diseinua
- Leire Kareagak diseinatutako zilarrezko pin edizioa: 250 ale1969,37€



Arma bildumaren urteurrenaren irudiarekin 500 iragarki-kubo	
Arma erakusketa berriaren berri emateko 750 txartel +	
Arma erakusketa berrirako 269 gonbidapenen edizioa.....	827,64 €
CM Gipuzkoa turismo gidan iragarkia	217,80 €
Hitzaldi eta bideo ezberdinen DVD edizioa	1149,50 €
Bildumaren urteurrena ospatzeko Euskadi Irratian 15 iragarki	635,25 €
Bildumaren urteurrena ospatzeko Radio Euskadin 15 iragarki	762,30 €
Radio Popularren iragarkiak.....	484 €
Guztira.....	4.348,22€

2.b2. Hitzaldiak

2014. urtean zehar, 3 hitzaldi antolatu ditugu:

1. “Los valores eibarreses de los Zuloaga (1794-2014)”

Museoen Nazioarteko egunaren ospakizunen baitan, urte honetako “Museoen bildumak sortzen dituzten loturak” gaiarekin uztartuta dagoen konferentzia antolatu genuen Museoan.

DR. IGNACIO SUÁREZ-ZULOAGA GÁLDIZ, Zuloaga Fundazioaren lehendakariaren esku egon zen hitzaldia.

Laburpena: Leinuko lehen Zuloagatarrak 1794. urtean Eibar utzi zuenetik, hamabi izan dira mundu osoko museo desberdinetan artelanak ikusgai izan dituztenak edo eta bilduma garrantzitsuen jabe (aurretik ez da horrelakorik inoiz ikusi). Eusebio, Placido eta Ignacio izan ziren Zuloaga ezagunenak. Damaskinatzaileak lehen biak eta margolari ezaguna, hirugarrena. Zuloaga Fundazioaren ustez, Zuloaga familiaren irautearen funtsa, eibartar kontsideratzen dituzten balio horiek mendez-mende aintzakotzat hartzea izan da

Bildutako partaide kopurua: 40 lagun.



El arquitecto Castor Gárate y el alcalde, Miguel de los Toyos, con el presidente de la Fundación, Suárez Zuloaga. :: FELIX HORQUECHO

Idatzizko prentsan oihartzuna:

El correo 07-05-2014

El diario vasco 07-05-2014

El diario vasco 09-05-2014

e-kultura 128

2. “Eibar Universal”. Bilduma baten historia

Nerea Alustiza Alonso historialariaren esku egon zen beste hitzaldi hau. Urriaren 9an, Portalea eraikineko 2. solairuko aretoan eskainitako hitzaldi honek arma bildumaren urteurrena izan zuen gai nagusitzat. 100 urte hauetan bilduma garrantzitsu honek jasandako joan-etorri eta zailtasun guztiak gogora ekartzeko balio izan zuen.

Bildutako partaide kopurua: 60 lagun.

Gastua: 300€

2. “Una industria, una villa. Eibar 1914”

Museo bat edo/eta erakusketa industrial bat sortzeko testuingurua. Jesús Gutiérrez historialariak eskaini zuen arma bildumaren urteurrena zela eta antolatutako ospakizunen baitan. “Eibar Industrial 2014”aldi baterako erakusketaren atarikoia izan zen gainera. Urriaren 23an, Portalea eraikineko 2. solairuko aretoan izan zen.

Bildutako partaide kopurua: 72 lagun

Gastua: 300€



"Una industria, una villa. Eibar en 1914"

2.b3. "Eibar Industriala 2014." aldi baterako erakusketa


1914. urteko ekainean Eibarren ospatu zen "Arte eta industrien erakusketa" garrantzitsu haren urteurrena goraiatu nahian, 2014. urteko enpresari Eibartarrek ekoizten dituzten kalitatezko produktuen aniztasuna erakutsiko duen aldi baterako erakusketa antolatu genuen Museoan. 40 enpresa ezberdinek hartu dute parte ekintza honetan eta horietako 23k, erakusketan jartzeko objektuak utzi dizkigute.

KOKAPENA: XXI. Mendari buruzko aretoa

IRAUPENA: azaroaren 27tik, martxoaren 29ra bitartean.

Azaroaren 27an izan zen inaugurazio ekitaldia.





EGINDAKO LANAK:

- Gaur egun Eibarren kokatzen diren enpresa guztiekin harremanetan jarri eta ekoizten diren piezen adibideak jasotzea.
- “Eibar Industriala 2014” erakusketarako jasotako pieza ezberdinen inbentario eta katalogatzea.
- “La nueva ciudad Armera” ikus-entzunezkoa eguneratzea
- Erakusketaren muntaketa..

Gastuak:

SONO enpresan egindako ikus-entzunezkoaren eguneraketa.....	3857,48€
ASTIXA enpresak eginiko dokumentazio eta katalogazio lanak	292,33€
KILT enpresaren ingeleserako itzulpenak.....	121€
ETA KITTO enpresaren euskarazko itzulpenak.....	154,35€
Material museografikoa:	
JBA enpresak eginiko errotulazioak.....	1.013,05€
VERJULPLAST enpresak egindako metakrilatozko euskarriak.....	3149,5€
“Eibar Industriala 2014” erakusketaren berri emateko 500 txartelen edizioa ...	271,73 €
Guztira.....	8.859,44 €



c) Programa didaktiko

c 1. Bisita gidatuak

Taldeentzako bisita gidatu en urteko egitasmoa.

Balio eta helburuak:

- Heziketa eta entretenimendua: Historia eta industria ondareari buruz modu atsegin eta erakargarrian aritzea.
- Historia, arte eta industria ondarearenganako errespetuaren baitan hezi eta nortasun kulturala indartu.
- Bisitari bakoitzak dituen ezaugarri eta beharretara moldatutako arrazoibide erakargarri eta koherentea bermatzea.

Hau horrela izanik, honakoak hartzen ditugu kontutan:

- Bisitariaren profila: adina, jatorria, heziketa maila, zaletasunak, ...
- Taldeak izan dezakeen jakin-mina edo motibazio desberdinak
- Taldearen izaera: familia taldeak, atzerritarrak, elkarteak, behar bereziak dituzten talde edo norbanakoak, erakunde ofizialetako ordezkariak, etab.

Bisitaren iraupena: 60 eta 75 minutu artekoa (taldearen beharren arabera).

Bista gidatuak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez eskaintzen ditugu.

2014. urtean zehar 39 bisita gidatu burutu ditugu. Horietariko 25 gaztelaniaz izan dira, 9 euskaraz eta 5 ingelesez. Bisita gidatu guztiak alde aurretiko erreserba bidez adostu ziren.

	Data	Taldea	Nongoa	Bisitari kopurua	Hizkuntza
1	2014-01-18	Museoaren arima	--	7	Erdaraz
2	2014-01-18	7. urteurrena	Publikoa	12	Euskaraz
3	2014-01-18	7. urteurrena	publikoa	56	Erdaraz
4	2014-01-23	Talde partikularra	Eibar	6	Euskaraz
5	2014-02-12	Gamarrako ostalaritza eskola	Gamarra	12	Erdaraz
6	2014-02-16	Afives	Bilbao	35	Erdaraz
7					
8	2014-02-18	IMH	Elgoibar	22	Euskaraz
9	2014-03-6	Esperientzia eskola	Eibar		Erdaraz
10	2014-03-12	LH ikasleak	Belgika	14	ingelesez
11	2014-03-16	"Bilbo Zaharra" euskaltegiko taldea	Bilbao	7	Euskaraz
12	2014-03-20	Olazabal BHI	Legazpi	21	ingelesez

13	2014-03-27	Immigrazio saila	Eibar	21	Erdaraz
14	2014-04-05	Carrefour bidaiak	granada	22	Erdaraz
15	2014-04-14	HHI-epa Arrasate	Arrasate	20	Euskaraz
16				25	Erdaraz
17	2014-04-26	Peña Taurina	Zaragoza	23	Erdaraz
18				23	
19				23	
20	2014-04-26	Talde partikularra	Eibar	14	Erdaraz
21	2014-05-9	J.A. Mogel eskola	Eibar	26	Euskaraz
22				24	
23	2014-05-22	San Pelayo eskola	Ermua	32	Erdaraz
24					
25	2014-06-9	Aldatze eskola	Eibar	17	Euskaraz
26	2014-06-19	Immigrazio saila	Eibar	17	Erdaraz
27	2014-07-01	URB-Grade Europar proiektua	Dinamarca	20	ingelesez
28	2014-10-22	Gurutze Gorriko taldea	Eibar	14	Erdaraz
29	2014-11-07	San Andres Eskola	Eibar	48	Euskaraz
30					
31	2014.11.18	S.D.Eibar	Eibar	50	Erdaraz
32					
33	2014-11-23	Eibarko akziodunak	Txinatarrak	8	ingelesez
34	2014-11-27	TEKNIKER	Europa	25	ingelesez
35	2014-12-01	EPA-Ermua	Ermua	36	Erdaraz
36					
37	2014-12-11	EPA-Eibar	Eibar	21	Erdaraz
38	2014-12-12	Babesten	Eibar	7	Erdaraz
39	2014-12-19	Immigrazio saila	Eibar	20	Erdaraz

urtea	Bisita gidatuen kopurua
2007	36
2008	47
2009	43
2010	60
2011	41
2012	67
2013	36
2014	39
GUZTIRA	367

C2. Jarduerak eta tailerrak

7. urteurrena:



Era berean, Museoaren irekieraren 7. Urteurrena zela eta, doako 2 bisita gidatu egin genituen.

Museora etorri ziren 100 pertsonetatik, 68k hartu zuten parte egun horretarako antolatutako bisita gidatuetan (15 haur, 36 emakume eta 48 gizonezko).

Komunikabideetako oihartzuna	Ona
Artikuluak egunkarietan	El correo 2014.01.16 4/5 orrialdea El Diario vasco 2014.01.16 4/5 orrialdea Eta kitto 874 zkia 2014-01-17 orri erdia
Oihartzun orokorra	Oso ona

Era berean, haur txikienei zuzendutako **Made in Eibar** ekintza berezia gauzatu genuen. Parte hartu zuten 4 partaideek marrazki eta argazkiak erabiliz, asmakizun berriak egiteko aukera izan zuten.

Helburua: Eibarko iragan industrialaren ezagutarazi eta sormena piztea. Herrian sortutako objektuak elkarrekin konbinatuz, asmakizun berriak garatzea lortu genuen.

2014. urtean zehar **"MUSEOAREN ARIMA"** deritzon bisita gidatu berezi bakarra gauzatu dugu Museoan. Normalean bisitariak sar ezin daitezkeen biltegi eta aretoak zabaldu genituen. Interesa bereziki piztu zuena Arma Biltegia izan zen.

Aste Santua Museoan

“Altxorraren bila museoan” tailerra

HELBURUA:

- Haur eta gaztetxoek Museoa modurik jostagarrienean aurkitzea da helburua.
- Parte-hartzaileek elkarlana, talde izaera, eta sormena bezalako balioak bereganatzea.
- 8 – 10 urte bitarteko aisialdi taldeei zuzendutako jarduera.

JARDUERA:

24 ume 6 taldeetan banatuta, museoko pieza esanguratsu batengana eramango zituzten pistak batu behar zituzten. Lehen aztarna eta museoko planoak baino ez genizkien eman. Pista bakoitzak gordetzen zuen galderari zuzen erantzunez gero, hurrengora eramango zituen. Bilatu beharreko “altxorra” aurkitu ostean, denboran kokatu eta gainontzekoei objektuari buruzko azalpenak eman behar zizkieten.

DATA: apirilaren 24an 17.00etan.

BILAKAERA:

1. Agurra eta museoaren eta jarrera normak aurkezpena
2. Jolasaren arauak azaltzea
3. Taldeak sortu eta materiala banatzea
4. Jolasa garatu. Museoko langileak arduratu ziren jolasa modu egokian garatzen ari zela. Jarrera egokia bermatu eta gogoetarako momentuak pizteaz arduratu ziren.
5. Bilatu beharreko pieza aurkitu ostean, argazki multzo batetik egokia aukeratu behar zuten. Hau egin ostean, denboran kokatu eta gainontzeko parte-hartzaileei azalpenak eman behar zizkieten. Irabazleek pirata txapela janzteko ohorea irabaziko dute.
6. Aurkitutako pieza guztiekin, horma-irudi kronologikoa sortu zuten.

MATERIALA: museoko planoak, pistak eta argazkiak.

IRAUPENA: 1:30´

Bertaratu zirenak:31

Lau talde antolatu genituen.

Ekintza honi esker, parte-hartzaile gehienengatik gurasoei Museoa ezagutzeko grina piztu genien.

Prentsan oihartzun eskasa izan zuen ekintzak.

ARTIKULUAK

Diario Vasco 2014-04-24 motza
El correo 2014-04-24 orrialdearen 1/5
e-kultura 127

Oihartzun orokorra gizartean:

ona

EKINTZAREN KOSTUA

60 € Axtisa
- 16 € (8 doako sarrera)
= 44 €

Parte-hartzaile bakoitzeko gastua: 5,5 €

Museoen Nazioarteko Eguna (2014).

Maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko egunaren 37. urteurrena ospatu zen mundu osoan zehar. Armagintza museoak, 2007. urtean atek zabaldu zituenetik egiten den moduan, ospakizun honekin bat egin zuen.

2014. urteko gaia **MUSEOEN BILDUMAK SORTZEN DITUZTEN LOTURAK** izan zen.

Museoek, bisitari, belaunaldi eta kultura desberdinen arteko loturak sortzeko balioa dutela gogorarazten zigun aurtengo lemak.

Armagintza Museoak bat egin zuen egun garrantzitsu honekin eta ekintza berezi hau garatu zuen:

Nire aitite-amama zera izan zen....

Museoen eguna ospatzen lagundu behar diguzu

Museoek, bisitari, belaunaldi eta kultura desberdinen arteko loturak sortzeko balioa dutela gogorarazten digu egun honek.

Konta lezaguazu zein lanbide zuten zure aitite edo amamak. Bidali argazki bat, egiten zutenari buruzko hitz batzuk, askotan errepikatzen zuten esaldi hura, ... irudikatuko duen edozer eta maiatzaren 18tik aurrera (*aitite irekien eguna*) museoako erakusketan irauunkorren bertatuko dugu zuk bidalitakoa. Historia ezagutu eta partekatzea gonbidatuta zaudete!

Adin guztietako aitite, amama eta bilobei zuzenduta :)

Maiatzak 11ra bitartean daukazu nahi duzuna bidatzeko. Nola?

Museo Industria Armara
@ArmagintzaEibar
Museo de la Industria Armara
armagintzamusoea@gmail.com

05 / 18

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

Adin guztietako bilobei eskainitako ekintza bat izan zen. Norberaren aitite edo amamaren ogibidea zein izan zen kontatu behar zuten. Sare sozialak erabiliz, aitite-amamen argazki bat bidali behar ziguten museora eta, honekin batera, beraien izaerari buruzko hitz gutxi batzuk. Jasotako

erantzun guztiekin fitxak osatu eta erakusketa iraunkorrean zehar banatu genituen. Maiatzaren 18tik uztailera bitartean egon ziren ikusgai.

Hona hemen, Facebook, Twitter, Pinterest eta Gmail bitartez jasotako 9 partaideren testigantzak:



"Amama Antonia Victor Sarasketako langileei bazkaria banatzen"

Aitor Urkia, bere bilobaren hitzetan:
"Hemen Antonia Eixeberria, nire amama, kamarera lanean, Victor Sarasketa lanetegiko langileei bazkaria banatzen".

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA


ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



Mi abuelo, Juan José Alday, trabajó muchos años en SOLAC haciendo planchas. Y claro, la amama tenía la plancha más moderna de todo el barrio E. Gabancho

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



Mateo Careaga, bere aita eta semea bezala, GRABATZAILEA.
L. Kareaga.

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



"AITXITXA JUAN MARI ORTUAN LANIAN"

Bere biloba **Julen Urben** hitzetan:
"Juan Mari Gallastegi, nire aitxixa, ortuan lanian, baserriko ortuan. Lehen baserria orain Alzola presa dauden tokian zegoan eta presa erakiki zabalduan presa ondoko borda bat bere anaia, tio Angelekin erakiki zeban"

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



Nire aiton-amonak hauek, Luxiano Balerdi eta Xeberi Arriaran. Familia handi bat aurrera ateratzeaz gain, harrobian eta burdindegian aitonak eta baserrian lana erruz egin zuten. Izan zirelako gara.
I. Gaston.

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



El aititxa Vicente Barrena, con otros fundadores, celebrando el 25 aniversario de Alfa en Elgueta.
M. Barrena

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



Foto del aititxa Eugenio y del taller que tenía con sus hermanos. Allí fabricaban timbres y chapas para bicis, insignias y otras cosas parecidas.
M. Barrena

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18

Mi abuelo se llamaba Jose Antonio Menaza y era presidente de las Juventudes Socialistas en Gipuzkoa. Murió en la batalla de Urkiola por un obús de las tropas franquistas. Era obrero en la CAF de Beasain y dejó viuda con 24 años y una hija de solo 2, llamada Celina Menaza, que ha luchado por los derechos de los Consumidores toda su vida a nivel nacional como presidenta de la Unión de Consumidores de España y la de Euskadi. Ya es hora que, a su edad, 83 años el Ayuntamiento se lo reconozca como Socialista de toda la vida y con Eibar en el corazón.
J.A. Alzaga.

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18



Jose Kareaga, nire aitxitxa, grabatzaile bezala lanean. Gabatzaile, margolari, bitxigile... artista handi bat.
N. Mendoza

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARMAGINTZAREN MUSEOA MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA 05 / 18

“Club gastronomikoa” tailerra

Ekainaren 5ean, Debegesaren partaidetzari esker, “Betiko produktuak teknologia berrietara moldatuak” zeritzon tailer gastronomikoa antolatu zen Armagintza Museoan Esperientzia berritzailea eta originala izan zen guztiz. Harrera oso ona izan zuen gainera. Bertako gastronomia tradizionala teknologia berriekin uztartu eta, Eibarko historia industrialean barrena bidaiatzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

23 pertsonak erantzun zioten deialdiari. 19:30etan aurkezpena egin zuten antolatzaileek eta ondoren, Oscar Treviño ostalari eibartarrak eta Museoko gidak hartu zuten bidai berezi honen lema.

1920. urtetik aurrera emandako dibertsifikazioa azaltzen den gunean egin zuten lehen geraldia. Bertako baserrietako jaki xumeek ponpa sofistikatuen tankera hartu zuten teknologiarri esker. Jaki berriak dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Motorren gunean, 60. Hamarkadan jazotako gertakariak ezagutzeaz gainera, limoi zaporezko chupa-chups-ak, baserriko tomate ura, Sosola baserriko gazta-krema eta flysch-eko txakolinaren arteko konbinazio harrigarri baina gustagarria dastatu zuten.

XXI .mendeari buruzko gunean, Gisasolako ilar freskoekin eta Itziarko letxuga txikiekin, itsasoko lainoberaz estalitako entsalada dastatu zuten.



Amaiera, kanpoko terrazan Flysch-eko txakolin gozoarekin batera, era guztietako pintxoak jateko aukera izan zuten bertaratutakoek. Jolas moduan, txakolin desberdinak, eta zapore gazi-gozoak ezkonduz, espero ez zituzten emaitzak dastatu zituzten.



Debegesak izan zuen izan-ematearen ardura. 10 € ordaindu behar izan zituen parte-hartzaile bakoitzak. Jasotako dirua, ekintzak eragindako gastu desberdinak estaltzeko erabili zen.

Parte-hartzaileak: 23 pertsona

Jardueraren kostua: 60€

CIBLES frantziar aldizkarian artikulua:

Armei buruzko Frantziako CIBLES aldizkariko arduradunek Museoa ezagutzeko asmoa adierazi zioten erakundeari 2014. Urteko maiatzean. Bertan jasotako informazio eta argazki guztiekin, urte bereko abenduan Armagintza Museoari buruzko 5 orrialdeko artikulua bikaina argitaratu zuten.



Eibarren Euskaraz bizi nahi dut azoka

Irailaren 20an ospatu zen Eibarren **Euskaraz bizi nahi dut azoka**. Euskaraz eta euskararekin lan egiten dugun hainbat elkarte eta zerbitzuek parte hartu genuen. Eibarren euskaraz bizitzeko dauden aukerak jendaurrera ateratzeko asmoz. Armagintza museoa bertan egon zen eskaintzari buruzko informazioa emateko. Egun horretarako 2014-2015 ikasturtea Museoak duen eskaintza didaktikoen gida prestatu genuen.



Oihartzuna idatzizko prentsan:

Correo 14.09.2014 orri erdia

Diario vasco 14.09.2014

Eta kitto

Jardueraren dosier berria

Museoaren eskaintza zabal eta anitzaren berri emateko helburuarekin, aurkezpen-txosten berri bat sortu dugu 2014. Urtean zehar. Dosier berri hau eskualdeko heziketa zentro guztietara bidali dugu.

Material didaktikoa eta irakasleentzako gida

Eskoletatik jasotzen ditugun taldeek museoaren edukiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko helburuarekin, irakasleei zuzendutako material berezia prestatu dugu. Honi esker, museora etorri aurretik naiz ondoren, hainbat gai ezberdin ikasgelan bertan landu ahal izango dituzte.

Santa Barbara eguna

Armagineen zaindaria den Santa Barbararen eguna ospatu genuen, urtero legez, joan den abenduaren 4an. Doako sarrera izan zuten egun horretan bertaratutako bisitari guztiek Era berean, egun horretan bertan, duela gutxi zendu zen Diego Godoy, “Choy” armagin handiari merezi zuen gorazarrea eskaini zitzaien. “Caza y armas” webguneko arduradunek ekoiztutako Diego Godoy “Choy”ri buruzko ikus-entzunezko bat eskaini genuen. Hildakoaren familiak Museoari dohaintzan emandako eskopeta bikainaren aurkezpena ere egin zen egun hartan. Omenaldi xume honek 127 pertsona bildu zituen Armagintza museoan.



C3. QR kodeen bidez Eibarren ibilaldi industrialak egiteko edukien ekoizpena.

MUSEOAK PORTALEAKO ATEAK IREKITZEN DITU: XX MENDEKO EIBAR INDUSTRIALAREN BISITA ELKARRERAGILEA

Eibarren historiarako erabakigarriak izan ziren bi garai zehatzi buruzko elkarreragileak ditu museoak: 1903. urtea, Ramón Cortázar-ek Zabaldura Plana garatu zuen unea, eta 1958, Hermenegildo Bracons-en Plan Orokorren data. Hiribilduaren transformazio sakonak eman zireneko bi une dira; Eibarren garapenerako ezinbestekoak izan ziren giltzak. Museoan jasota dagoen informazio guztia abiapuntu bezala hartuta, **mugikorretan irakurtzen diren QR kodez osatutako ibilbide birtual autogidatu bat garatu dugu.** Ondarearen interpretaziorako oso erabilia izaten ari da erreminta hau. Berrikuntza arloko puntako gailuetan konfiantza osoa daukagu eta apustua sendoa da. Proiektu honi esker, erabiltzailearekiko interakzio librea bermatzen dugu. Informazioa lortzeko Museora joaten arte itxaron nahi ez duen publiko desberdinari zuzenduta legoke.

Komunikazio modu berriak babestu nahi genituzke modu berri honi esker, gaur egun ondarea eta berrikuntzak bide beretik baitoaz.

2014. urtean zehar honako lan hauek burutu ditugu:

1. fasea: Interes arkitektoniko, kultural, industrial edo eta lanaren kulturarekin zerikusia duten 10-15 gune uztartuko dituen ibilbide bat sortu dugu.

2. fasea: Edukien garapena

ONDARTEZ enpresak idatzi ditu ibilbide honen edukiak

Gastua: 3.000 €

2015. urterako proiektu honen hainbat zati garatzen jarraituko dugula aurreikusi dugu:

3. fasea: ibilbidearen edukiak Museoaren webgunean hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelania eta ingelesa) txertatzea.

4. fasea: BIDI kodeen arabera eduki guztien indexazioa. Funtzio honi esker, aurrez museoko webean dauden edukiak ere kontsultatzea baimenduko da. Gainera, BIDI kodeei esker, eduki hauek mugikorren bitartez ere kontsulta ahal izango dituzte

5. fasea: BIDI kodeen diseinu, fabrikazio, inpresio eta ibilbidean zehar jartzea. Dagoeneko Udal-hirigintzako Batzordeak onartu du hauen instalazioa. Berreibar Elkarteak arduratuko da kodeak ibilbidean jartzeaz.

d) Hitzarmenak

Untzaga Plaza hotela eta Eibarko Udalaren arteko hitzarmena

Untzaga Plaza hotela eta Eibarko udalaren artean sinatu den hitzarmenaren ondorioz, 500 doako sarrera jaso ditu hotelak bezeroen artean banatzeko.

e) Funtsen kudeaketa

Dohaintza eta gordailutzean onartutako piezak:

- Orbea markako kartutxo-uhala eta kartutxoak.
- Damaskinatutako erlojua
- “Tradición Armera y vanguardismo tecnologico de la Vega” liburua
- Pablo Sarasuak damaskinatutako anfora bat.
- M43 modeloko Star markako pistola semiautomatikoa
- Zafiro modeloko Orbea markako bizikleta
- Victor Sarasqueta lantegiko hainbat merkataritza-dokumentu
- Diego Godoy “Choy”-k ekoiztutako SP modeloko eskopeta
- Julian Ibargutxi Armendariz (1900-1954) eta Juanita San Pedro Arozcena (1908-1989) damaskinatzaileek erabilitako erreminta ezberdinak

Piezen lagapena :

Archidonan (Malaga) 2014 ko maiatzaren 3 eta 4an ospatutako XXII. Feria del Perro azokari 14 arma utzi zizkion Armagintza Museoa

Artxiboen kontsulta

Urriar Ursula Luna Velascok **Gipuzkoako museotako jarduerak didaktikoak** proiektua aurrera eramateko museo hnetako artxiboak kontsultatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta

g) Biltegiaren hobekuntza

Hezetasun-kengailu baten instalazioa

Arma-biltegiak hezetasun handiegia zuen. Han gordetzen diren piezen kontserbazio egokirako, ingurune-hezetasun portzentaia %50 ingurura jaitea beharrezkoa izan da.

g) Prakticak

Praktika programa : Lehen aukera

Erakundea: UPV/EHU

Ikaslea: Daniel Cuende de Francisco

Epea: 2015eko Maiatzak 5 uztailak 27

Lanak:

- Piezeen erregistro eta katalogazio EMSIME aplikazioan
- Dokumentuen digitlizazioa
- Zabalkuntza
- dDokumentu berriekin Web orrialdea gehitu